



2014ko AUO-KO IKERKUNTZA-SARIAK

Oinarri orokorrak

1. HELBURUA

AUO-ko ikerkuntza-sarien helburua da aitortzea eta suspertzea herritarren osasuna eta bizitza-kalitatea hobetzeko lan egiten duten pertsonak eta erakundeak, eta ez soilik eurek egiten duten lan zientifikoa edo asistentzialaren bidez, baizik eta gizarteari ekartzen dioten onuraren ikuspuntuaren bidez ere. Sariak urtero banatzen dira.

2. HAUTAGAIK

- Eskaera-motak edo kategoriak:
 - Egindako ikerketa-lanak: artikulua, posterrak, eta ahozko komunikazioak.
 - Ikertzaile hasiberria.
 - Talde berritzailea.
- Hautagaitzak aurkezteko baldintzak, eman beharreko dokumentazioa eta ebaluazio-irizpideak oinarri hauetan bertan azaltzen dira, kategoria bakoitzari dagokion atalean.
- Aurkeztuko diren lanak ikerkuntza-jardunaldietako hautagaitza batera baino ezin dira aurkeztu.

3. SARIAK:

Lau modalitate daude:

- A. Estatuko artikulurik onena, IMEren arabera
- B. Nazioarteko artikulurik onena, Science Citation Index-en arabera (SCI)
- C. Ikertzaile hasiberri onena
- D. Talde berritzaile onena: bi mailatan
 - i. Pertsonal sanitarioa
 - ii. Pertsonal ez sanitario

Kategoria bakoitzeko lan finalistak, **eta poster edota komunikazio onena ere** ohorezkoak dira, eta AUO-ko ikerkuntza-sarien egiaztatzea jasoko dute.

Sariak jasotzeko, hautagaiek edo taldeko kideren batek sariak emateko ekitaldira joan beharko dute. Ekitaldi hori Arabako Unibertsitate Ospitaleko Santiago egoitzako ekitaldi-aretoan egingo da, 2014ko azaroaren 27an.

4. HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Hautagaitzak aurkezteko epea 2014ko irailaren 15tik urriaren 5era izango da. BIOARABAn webgunean www.bioaraba.org dagoen aplikazioa (<http://bioaraba.org/2014-2/programa-de-jornadas-2014>) erabiliz bakarrik aurkeztu daitezke, talde berritzaileen hautagaitzak izan ezik, posta elektronikoaren bidez aurkeztu beharko direnak.

Hautagaitzak bidali ahal izateko, aurretiaz erregistratu behar da erabiltzaile eta pasahitzaren bidez.

5. BALORAZIO-BATZORDEA

- AUO-ko Ikerkuntza Batzordeko kideek, nahiz haiek izendatutako beste pertsona batzuek osatuko dute batzordea.
- Epaimahaiak erabaki dezake saria ez ematea, hautagaiek ez dutela behar adina meritu iritzita.
- Epaimahaiaren esku dago, halaber, kategoria bakoitzeko eskakizun eta baldintzetara egokitzen ez diren hautagaitzak atzera botatzea.

Oinarri espezifikoak

1. IKERKETA-LANAK

BALDINTZAK

OSAKIDETZAKO Arabako zentroetako langileek 2013ko irailaren 1etik 2014ko abuztuaren 30era bitartean aurkeztutako/argitaratutako lanak izan behar dira (artikuluak, ahozko komunikazioak edo posterrak). Artikuluen kasuan, on line argitaratutako data hartuko da kontuan.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA BIDALTZEKO PROZEDURA

Kasu bakoitzari dagokion formularioa beteko da, eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez <http://bioaraba.org>. Gainera, artikuluen eta posterren kasuan, dagokion artxiboa ere bidali behar da (.pdf, .doc, .docx edo .ppt formatuetan).

Formulario horretan, informazio hau jaso behar da:

- Aurkezpen-mota: artikulua, posterra edo ahozko komunikazioa.
- Izenburua, egileak, parte hartu duten zerbitzuak.
- Laburpena (500 hitz): sarrera, helburuak, materiala eta metodoak, emaitzak eta ondorioak.
- Aldizkariaren erreferentzia osoa (artikuluetarako).
- Kongresuaren izena, tokia eta aurkezpen-data (posterren eta ahozko komunikazioen kasuan).

Aurkeztutako lan guztiak Arabako Unibertsitate Ospitaleko bi egoitzetako sarrera nagusian egongo dira ikusgai, azaroaren 3tik 28ra. **Pazienteen irudiak agertuz gero, eurek emandako baimena beharrezkoa da.** Baimen informatuaren eredua helbide honetatik jaitsi daiteke <http://bioaraba.org>.

EBALUAZIOA

Aurkezpen-epaia amaitu ondoren, balorazio bat egingo du epaimahaiak, ebaluazio-irizpide hauetan oinarrituta:

- Egilea
- Zein aldizkaritan argitaratu den (artikuluen kasuan bakarrik)
- Ikerketa-mota
- Bidezkotasuna
- Metodologiaren kalitatea
- Aplikazio praktikoetara transferitzeko aukera.

2. IKERTZAILE HASIBERRIA

BALDINTZAK

- Biomedikuntza arloan, hauek aurkeztu daitezke ikertzaile hasiberriaren sarira:
 - 40 urteko edo gutxiagoko ikertzaileak.
 - Gaur egun Arabako edozein zentrotan ikerkuntzan ari direnak.
 - Aktibo jarraitzen dutenak.
 - Aurreko urteetan saririk jaso ez dutenak
- Arabako osasun-sareko zentro publiko guztiek aurkeztu ditzakete hautagaiak.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA HAUTAGAITZA BIDALTZEKO PROZEDURA Formularioa bete behar da <http://bioaraba.org> gunean eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez.

Formulario horretan, informazio hau jaso behar da:

- Prestakuntza akademikoa, hauek zehaztuz:
 - Doktoregoa
 - DEA/masterra
 - Gradu-aurreko bekak / Graduondokoa / egoiliarren espezialitatea
 - Ikerkuntzako ikastaroak
- Prestakuntza-gaitasuna, hauek zehaztuz:
 - Gradu-bukaeraren zuzendaritza
 - Master-bukaeraren zuzendaritza
 - Tesi doktoralaren zuzendaritza
- Argitaratutako zientzia-artikuluak, hauek zehaztuz:
 - Artikuluaren aipamen osoa, eragina eta autorearen ordena.
 - Liburuen atalak
- Agentzia publiko edo pribatuek finantzaturik, bukatu edo martxan dauden proiektuak, zeinetan parte hartu duten (EAEko, estatuko edo nazioarteko lehia-prozeduren bidez lortuak). Datu hauen berri eman beharko da:
 - Izenburua
 - Lotura: ikertzaile nagusia edo laguntzailea
 - Nazioarteko /estatu /autonomiako / tokiko finantza-entitatea

EBALUAZIOA

Aurkezteko epea amaitu ondoren, balorazioa egingo du Epaimahaiak, ebaluazio-irizpide hauetan oinarrituta:

- Egindako ikerketaren kalitatea (inpaktu-faktorea eta aldizkarietako kuartila).
- Ikerketa publiko edo pribatuko proiektatua
- Biomedikuntzako ikerketa-lerroarekiko leialtasuna.
- Egindako ikerketaren interesa eta erabilgarritasuna ingururako.

3. TALDE BERRITZAILEA

ESKAKIZUNAK

Osakidetzako Arabako zentroetako edozein pertsona edo langile-taldea hautagaia izan daiteke. Horretarako azken bi urteotan egindako proiektu berritzaile bat, bukatuta edo ez, aurkeztu behar dute eta haren emaitzak neurgarriak izan behar dira adierazle objetibagarrien bidez.

Proiektuaren helburuak lortzen direla ziurtatzeko egitura nahikoa izatea.

Pertsona edo talde bakoitzak proiektu bat baino ezin du aurkeztu.

Proiektu berritzaileen helburuak zerikusia izan behar du medikuntza, osasuna eta ongizatearen arloko alderdi hauetariko batekin:

Pertsonal sanitarioa

- a. Ikerkuntza mediko- zientifikoa
- b. Osasun-arrisku eta gaixotasunen prebentzioa.
- c. Prestakuntza, gizarte eta laneko sentsibilizazioa.
- d. Gizarteko erantzukizuna, elkartasuna eta laguntza medikuntzan sustatzea.
- e. Gaixotasunen diagnostikoa eta tratamendua.
- f. Osasuna, ongizatea eta bizitzaren kalitatea hobetzeko proiektuak
- g. Ingurumenean eragina duten osasun-proiektuak
- h. Sentsibilizazio-ekintzak suspertzea eta bizitza-aztura osasungarrietan kontzientziaztea

Pertsonal ez sanitarioa

- i. Berrikuntza hobetzeko eta eraginkorrago egiteko administrazio-sistemak, mantentzea eta AUO-ko pazienteen garraioa.
- j. Berrikuntzak AUO-ko garbiketa, ikuztegi eta sukaldeari dagozkion arloetan.
- k. Sentsibilizazio-ekintzak suspertzea eta bizitza-aztura osasungarrietan kontzientziaztea
- l. Osasuna, ongizatea eta bizitzaren kalitatea hobetzeko proiektuak
- m. Ingurumenean eragina duten osasun-proiektuak

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA HAUTAGAITZA BIDALTZEKO PROZEDURA

Formularioa bete behar da <http://bioaraba.org> gunean eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez.

Aipatutako inprimakian informazio hau agertu behar da:

- Aurkezten den kategoria: profesional sanitarioa / ez sanitarioa.
- Proiektuaren izenburua eta parte hartzen duen taldea.
- Laburpena (gehienez 500 hitz): helburuak eta lan-metodologia .
- Proiektuaren deskribapena (gehienez 3 orrialde): gaiaren gaurko egoera, proiektuaren helburua, erabiliko den lanaren metodologia, egutegia, kostuak, hasierako emaitzak, eta abar.
- Justifikazioa (gehienez, orrialde 1): proiektuak dakarren gizarte-onura, eraginkortasuna, aberastasuna, lanpostuak edo komunitatean izan dezakeen eragina eta ingurumenerako balioa.
- Aurkeztu beharreko dokumentu interesgarriak: dokumentu eta fitxategiak; adibidez, dokumentuak, argazkiak, bideoak edo aurkezpen gehigarriak.

Dena bete ondoren, aplikazio beraren bidez bidali behar da Arabako Ikerkuntza Unitatera. Halaber, formularioa posta elektronikoaren bidez bidal daiteke helbide honetara:

unidadinvestigacion.araba@osakidetza.net

EBALUAZIOA

Proiektuak ebaluatuko dira egokitasun, egingarritasun eta aplikagarritasunaren arabera, eta baita Osakidetzako onuradunengan eragin potentzialaren arabera ere: pazienteak, senideak, erabiltzaileak eta langileak.

Proiektuen gizartean onura, eraginkortasuna, aberastasuna eta lanpostuak sortzeko gaitasuna aztertuko da; eta halaber, komunitatea eta ingurumenean duen eragina.

Ezagutza sortzen duen ebaluatuko da; baina, bereziki ezagutza honek aplikagarritasuna izatea kontuan hartuko da.